



## **OROZKOKO UDALA**

### **ADMINISTRAZINO-AGIRIAK EGITEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA FISKALA**

*(2019/12/17ko 240 zb. B.A.O.ean argitaratua)*

#### **I. OINARRIA ETA IZAERA**

##### **1. artikulua**

Konstituzinoaren 133.2 eta 142. artikuluetan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauazan apairilaren 2ko 7/85 Legearen 106. artikulua emondako ahalmenak erabiliz eta Toki Ogasunak arautzen dauazan abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauan xedatutakoagaz bat etorritz, Udalak Zerga Ordenantza honek eraentzen dauen administrazino-agiriak egiteari buruzko Tasa ezartzen dau; Ordenantzaren arauak arestian aipatu Foru Arauak agindutakoari erantzungo deutse.

#### **II. ZERGA-EGITATEA**

##### **2. artikulua**

1.-Tasaren zerga egitatea Administrazinoak edo Udal Agintariak egiten dabezan agiri eta espedienteen tramitazinoaren zioz gauzatutako eta alderdiak eskatutako administrazino jarduera izango da; hain zuzen be, ordenantza honen 7. artikuluan adierazten dira zeintzuk diran agiri honeek.

2.-Ondore horreetarako, alderdiak eskatuta tramitautakotzat hartuko dira: norbanakoak eragindako edozein administrazino agiri edo norbanakoaren onurarako dan edozein agiri, baita interesauak berariaz eskabiderik egin ez dauenean be.

#### **III. SUBJEKTU PASIBOA**

##### **3. artikulua**

Zergadun subjektu pasiboak dira kasuan kasuko agiri edo espedienteak tramitetea eskatzen edo eragiten dabezan pertsona fisiko eta juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak aitatzen dauazan erakundeak.

#### **IV ERANTZULEAK**

##### **4. artikulua**

1.- Subjektu pasiboaren zergak ordaintzeko betebeharrei solidario lez erantzungo deutesiez Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 41. artikulua aitatzen dabezan pertsona fisiko eta juridikoak.



## **OROZKOKO UDALA**

2.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan aitatzen diran pertsona edo erakundeak erantzule subsidiarioak izango dira.

### **V. SALBUESPENAK ETA TARIFA**

#### **5. artikulua**

1.- Tramitatu beharreko agiri edo espedienteen izaeraren arabera adierazitako kopuru finko batek zehaztuko dau zerga kuota, ondorengo artikuluan jasota dagoen tarifagaz bat etorritz.

2.- Tarifaren kuota, auzialdi bakoitzean, kasuan kasuko agiri edo espedientearen tramitazio osoarena da, tramitazioaren hasieratik suntsiarazpenera arte baita lortutako akordioaren ziurtagiria eta jakinarazpena.

#### **6. artikulua**

Aurreko artikulua aitatzten dauen tarifa honako epigrafeetan egituratzen da:

- 1.- Udaletxean dagozan agirien fotokopia dilijentziadunak 0,10 € orri bakoitxeko.
- 2.- A4 Fotokopiak-aurpegi bat 0,10 euro
- 3.- A4 Fotokopiak-aurpegi bi 0,15 euro
- 4.- A3 Fotokopiak-aurpegi bat 0,15 euro
- 5.- A3 Fotokopiak-aurpegi bi 0,15 euro
- 6.- Ordenantza fotokopiak A4 (Orria) 0,10 euro
- 7.- Espedienteen kopiagintza, A4 fotokopien prezioan, fotokopia kopuruaren arabera.
- 8.- Aurtengo urtearen aurreko 3 urteetako espedienteen kopiagintza, A4 fotokopien prezioaren bikotzean, fotokopia kopuruaren arabera.

### **VI. SORTZAPENA**

#### **7. artikulua**

1.- Tasa sortu eta zergak ordaintzeko betebeharra jaioko da zergapeko agiri eta espedienteen tramitazioari hasiera emoten deutson eskabidea aurkezten danean.

2.- Bigarren artikuluko 2. zenbakiak aitatzen dauazan kasuetan, ofiziozko udal jarduera eragiten daben inguruabarrak emoten diranean gertatuko da sortzapena edo jarduera interesauak eskatu barik hasi arren be interesauarentzat onuragarria danean.



## **OROZKOKO UDALA**

3. -Beti be, ordainketa aurretiaz eskatuko da.

### **VII. AITORPENA ETA SARRERA**

#### **8. artikulua**

1.- Tasa autolikidazino araubidean ordaindu behar da. Dokumentua edo espedientea tramitetako eskabide-idazkiagaz batera, ordainketaren ziurtagiria erantsi behar da. Eskabide-idazkirik ez badago edo eskaera ez bada beren beregi egin, ziurtagiria dokumentuari edo espedienteari erantsiko jako.

2.- Ordainketaren ziurtagiria ez dakarten idazkiak behin-behinean onartuko dira, baina ezin izango dira bideratu harik eta ziurtagiria aurkezten dan arte. Horretarako, interesatuari agindeia egingo jako, hamar eguneko epean, kuotak ordaindu daiazan. Ordainketa ez badau epe barruan egiten, idazkiak ez aurkeztutzat jo eta eskaera artxibau egingo da.

3.- Udal Administrazioak auzi mota guztietarako Epaitegi edo Auzitegien ofizioz egiten dauazan ziurtagiri edo agiriak ez dira emongo ezta bialduko be aurretiaz zerga kuota ordaindu ez bada.

### **VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

#### **9. artikulua**

Zergen ganeko urratzeen kalifikazinoari jagokenez eta kasuan kasuko zehapenei jagokenez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 183 eta ondorengo artikuluetan xedatutakoari lotuko jako.

### **VIII. AMAIERAKO XEDAPENA**

Zerga ordenantza hau Bizkaiko Toki Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoagaz bat sartuko da indarrean (abenduaren 31ko BAO).